K126:kalaputxi aldizkaria.qxd 14/03/13 21:55 Página 1

MUTRIKUKO PORTUKO ARRANTZA DARSENAREN BERRANTOLAKETA

MUTRIKUKO HERRI ALDIZKARIKA
2013ko martxoa 126. zenb.

KALAPUTXI

Aberri Eguna 2013

INDEPENDENTZIA



Aratz eta Ugaitz

"AIZKORAK BADU ETORKIZUNA"



HORMONEN GORABEHERAK AMIETA ERROTA ETA JABEEN BETEBEHARRAK ARRAINLANTEGIAK GOIARI EUSTEN! YURRITA E HIJOS S.A. ENPRESAK (1867) CALOGERO BILLANTE S.A. (1870) EROSI DU MOTXAILLIAK GURIAN JAZZA ZURIÁREN GAINEAN

K126:kalaputxi aldizkaria.qxd 14/03/13 21:55 Página 2

EUSKAL HERRIA

nazioa gara



estatua behar dugu

independentzia

burujabetza

ZAZPIAK BAT

GALDONAKO JAIXAK

MARTXOAK 29 – OSTIRAL SANTUA

16:30etan TUTE LEHIAKETA

APIRILAK 1 – PASKUA TXIKI EGUNA

Eguerdian: MEZA

16:30etan HERRI KIROLAK

Harrijasotzen: IÑAKI PERURENA (aita) eta LANGARBIDE
Aizkoran: ARATZ eta UGAITZ MUGERZA
Bukaeran: GORRITIREN ABEREAK

ARKUMEA ZOZKETATUKO DA!

Camping GALDONA

K126:kalaputxi aldizkaria.qxd 14/03/13 21:55 Página 3

aurkibidia

Informaziua	4
Zeuk esan	5
Puri-purixan	6
Bi hitzetan	8
Lan giruan	10
Karenka	12
Lapazorrikeixak	14
Historixa	15
Literatura txokua	16
Korrika	17
Bertsuak	18
Hezkuntza	19
Zorion agurrak	20
Argazki zaharrak	21
Agenda	22

*Kalaputxi*k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen-iritzien erantzunkizunik.

Argitaratzailea
Karenka komunikazio elkartea
Barrenkale,12 behea - 20830 Mutriku.

Telefonoa
635 748 393
e-maila
kalaputxi@topagunea.com
kalaputxi2001@gmail.com
Bloga
kalaputxi.blogspot.com
Laguntzailea
Mutrikuko Udala
Kolaboratzaileak
Iñigo Andonegi, Josu Ituarte, Josu Larrañaga,
Javi Castro, IXA sexualitate eskola, Aitor Lizardi.
Tirada
2.200 ale
Lege Gordailua
SS-787/01
ISSN
1579-4792
Inprimategia
EUSKALINPRI. Deba
Banaketa
Kalaputxi

iritzixa

MARTXOAK 8

Herriaren jakinduria da egutegiko egun zehatz bat beretzat gordeta daukala jakitzeak, garai latzak bizi dittugula. Esate baterako, Giza Eskubideen Aldeko Nazioarteko Eguna existitzea; abenduaren hamarrean. Eta Bakearen Nazioarteko eguna, irailaren hogeitabatean. Edota, Euskararen Nazioarteko Eguna abenduaren hiruan … Egun horrek geure kontzientziak astintzen dittuzte, eta urteen joanean, ohitturak lagunduta, egutegia begiratu ere ez degu egin behar, "egun honetan zera honi buruz" zeozer antolatu behar dala jakitzeko.

Hirurehun eta hirurogeitabost bat nazioarteko egun kalkulatzen dia egutegiari gainbegirada bat emanda. Baina egun zehatz bati egingo diogu kasu hil honetan, martxoak 8ari, Emakumearen Nazioarte Eguna.
Nazio Batuen Erakundeak, martxoaren zortzia, ofizialki, Emakumearen Nazioarteko eguna 1977an onartu bazoan ere, 70 urte lehenago hasi zan egun sinboliko hau eratzen. Eman dittugu, bai, berdintasuneranzko zenbaitt urrats, baina asko dago egiteko oraindik, eta beldur gea nazioarteko egunak ez diren sinbologia hutsean galduko.

Hogeitahamabi urte ospatzen daramagun egun honetan, nahi beste plan berdintzaile topatu dezakegu edozein herri eta hiritan. Baina gizon-emakumeon parekotasuna ez da "Biba Emakumeak" aldarrikatzea bakarrik; bakea bultzatzeko "Gora Bakea" lelopean manifestatzea nahikoa ez dan moduan. Hitzetatik ekintzetara, martxoaren zortzitik egunerokotasunera. Poz haundiz ikusiko genduke matxismoaren gainbehera hemendik aurrea, hori bai hori martxa! Eta gainera, behingoz, emakumezko eta gizonezkoak eskutik hartuta.

Maribel Urkiri Arruti

Kultura Saila
Hizkuntza Politikarako Sailordetza
EUSKO JAURLARITZA

Gipuzkoako Foru Aldundia

Mutrikuko Udaleko
Kultura eta Euskara Batzordea

K126:kalaputxi aldizkaria.qxd 14/03/13 21:55 Página 4

telefonoak

Medikuak, anbulantziak, botikak

Larialdiak 943 46 11 11
Anbulatorioa 943 60 43 00
DYA zentrala 943 46 46 22
Mendaroko ospitala 943 03 28 00
Zaintzako botikak:
Otxagabia (Mutriku) 689 58 57 59
Apraiz (Mutriku) 630 05 50 97
Zalduegi (Deba) 669 26 22 01
Burgoa (Deba) 667 33 88 90
Etxeberria (Elgoibar) 943 74 01 40
Garitaonaindia (Elgoibar) 943 74 11 77
Yudego (Elgoibar) 943 74 12 93
Barrenetxea-Etxeberria (Elgoibar) 943 74 12 77

Udala, zerbitzuak...

Udaletxea 943 60 32 44
Udaltzaingoa 943 60 70 48
..... 679 16 25 00
Gizarte Ongizatea 943 19 50 81
Zaharren Egoitza 943 60 38 71
Turismo bulegoa 943 60 33 78
Bake Epaitegia 943 60 70 49
Alde Zaharra eraberritzeko zerbitzua 943 60 34 18
Kiroldegia 943 60 31 75
Liburutegia 943 60 41 82
Miruaitz Frontoia 688 64 31 80
Ur partzuergoa 902 30 22 22
Zakarrak eta traste zaharrak 943 70 07 99
Anai Arte 943 60 34 10

Irakaskuntza

Goizeko Izarra ikastola 943 60 36 75
San Miguel ikastetxea 943 60 31 95
Mutrikuko Institutua 943 60 35 45
Udal euskaltegia 943 60 30 94
Musika eskola 943 60 37 80
Haur eskola publikoa 943 60 41 19

Garraio zerbitzuak

Ansola Taxia 638 672 383
Anton Taxia 666 221 999
Xabi Taxia 656 289 026
Pesa autobusak 902 10 12 10
Eusko Trenbideak 902 54 32 10
Loiuko aireportua 905 50 50 05

Bestelakoak

Iberdrola 901 20 20 20
Kofradia 943 60 32 00
Posta zerbitzua 943 60 30 44
Gasolindegia 943 60 32 10

ordutegiak

Autobusak

MUTRIKUTIK → DONOSTIARA

Astegunak 7:00 / 10:00 / 13:30 / 19:30
Zapatuak 10:00 / 16:30
Jai egunak 10:00 / 19:30

DONOSTIATIK → MUTRIKURA

Astegunak 8:00 / 11:30 / 14:30 / 20:30
Zapatuak 11:30 / 19:30
Jai egunak 11:30 / 20:30

MUTRIKUTIK → BILBORA

ASTEGUNETAN GOIKO ERROTONDATIK

06:25 / 07:25 / 15:25

BILBOTIK → MUTRIKURA

14:10 / 18:10 / 20:10

MUTRIKUTIK → DEBA - MALLABIA

Astegunetan: 7:15etik 21:15era **orduro**.
Jai egunetan: 8:15etik 21:15era **orduro**.

MUTRIKUTIK → ONDARROARA

Astegunetan: 6:55etik 20:55era, **orduro**.
Jai egunetan: 7:55etik 20:55era **orduro**.

Trenak

Orduro ateratzen dira adierazitako ordu tartean.

DEBA → DONOSTIA → DEBA

Debatik **6:44** – 7:44 - ...- **21:44**
Donostiatik **5:47** – 6:47 - ...- **20:47**
Jai egunetan 8:44etan lehenengoa.

DEBA → BILBO → DEBA

Debatik **6:43** – 7:43 - ...- **20:43**
Bilbotik **6:00** – 7:00 - ...- **20:00**
Jai egunetan 8:43etan lehenengoa.

DEBA → EIBAR → DEBA

Debatik **6:43** - 7:43 - … - **21:43**
Jai egunetan, 8:43etan hasiko da

Eibartik **6:13** - 7:13 - ... - **21:13**
Jai egunetan, 8:13etan hasiko da

K126:kalaputxi aldizkaria.qxd 14/03/13 21:55 Página 5

AURREKO GUTUNAREN HARITIK GAUZAK ARGITZEN

Eman dezagun atez atekoa etxetik bertatik sortzen ditugun hondakin guztiei beren destinoa ematea dala, gaikako bilketa egitea etxetik hasita: Beirak, ontziak, paperak, olioak, pilak, "naturala" ongarri bihurtuko dena eta material organikoa deitzen zaiona, errefuxa edo beste hondakin txiki guztiak; haundiak garbigunera eramaten baitira edo egun jakin batzuetan egiten den jasoketa berezietan eramaten dituzte. Gaikako bilketa ondo egiteko lehenik behar dena borondatea da, bitartekoak jartzea gero eta hortik aurrerakoa ohitura besterik ez da.

Zer abantaila ekarriko lizkiguke? Danen gainetik ondo egitearen satisfakzioa, horrela badakigu gutxienez birziklatu ahal badira behintzat, materialak ez dirala alferrik galduko, eta horren beharrean gaudela. Zer ez al dakigu munduko energia erreserbak agortzen ari dirala?
Ondoren, norbanakoak konpromisoa hartzen du etxetik hasita, geure begi bistara datoz alferrikako paper, kartoi, plastiko eta ontzi bilgarriak, honek konszienteago egiten gaitu xahuketaz. Urrutira joan gabe, gaurko krisia haundira jotzearren izan da, batzuen onerako eta gehiengoaren okerrerako. Ziklo kontsumista honi bukaera emateko ordua ez ote da etorri?
Abantailak danak, batzuk epe motzera eta besteak erdira: Ez da zikina, zikina da gaur egun kaleak zakarrez gainezka eukitzea; Ez da zatarra, nahieran antolatzen da hartara jarriz gero; Ez du intimidadea apurtzen, intimitatea apurtzen degu gauzak erostera goazenean ere, inor ez dabil kuxkuxeritzan, izatekotan ere identitateak, helburu pedagogikoa dauka eta ez zigortzailea, hau da gaika biltzen ikastekoa. Ez da erosoa ohitura hartu arte, gainera etxetik hurbilako jasotzen dira.

Ez dakigu zenbat eragozpen egon daitezkeen, baina denak dira konpongarriak, arazoa da aurrera egin behar degula zentzu ekologiko-jasangarrian. Herri txiki bat gerala eta Gipuzkoak ez du inongo errauskailurik behar. Birziklagarria den guztia birziklatzen badugu % 20 gelditzen da, 40.000 Tona urtean eta Zubietako Planta 240.000 tona erretzeko diseinatuta dago. Ondorioak norberak atera dezala.
Edozertarako zuen zerbitzuan
mutrikuzerozabor@gmail.com

Mutriku Zero Zabor

ZER GERTATU DA HERRI GALDEKETAREKIN?

Zazpi hilabete. Hau da, gure herrian nolako zabor-bilketa eredua nahiko genukeenaz galdeketa egin dadin eskatzeko, iazko uztailaren 26an udaletxean 1710 sinadura aurkeztu zirenetik iragan den denbora. Zazpi hilabete udaletxera deitzen, osoko-bilkuretan behin eta berriz galdegiten, informazio eskabideak luzatzen, udaletxera prozesuaren aurrerabideaz jakiteko bisitaldi ezberdinak egiten eta bertakoei eman beharreko urratsen berri azalpenak ematen,... . Eta zertarako...? hutsaren hurrengorako. Eta hutsaren hurrengoa diodanean, horixe da zehazki; HUTSA. Ez dute, BAI, mutrikuarrei galdegitea erabaki dugu edota, EZ, ez dugu egingo; bezalako erantzunik eman. Adierazgarriena da ez dutela inolako erantzunik eman. Eta erantzunak ematera behartu nahi izan ditugunean, pentsatu egin behar dugu, gaiaren alde legalak ikusi behar ditugu edota herri galdeketak egiteko arautegi bat prestaketa lanean ari gara, bezalako erantzunak aditu ditugu. Azkena, sinadurak egiaztatzen ari gara izan da. Iruditzen zait zazpi hilabetek emango zutela sinadurak goitik behera, ezkerretik eskuinera nahiz eskuinetik ezkerrera ere ikusi eta baiezatu ahal izan zitzaten. Honek guztiak argi erakusten du udalak, ezinbestean, hartu beharko duen erabakia atzeratzeko azken-aurreko aitzakiak baizik ez direla. Azkenean, horixe baita asmoa, udaletxeak zer egin nahi duen erabakia har dezan. Mutrikuarrei, zaborren bilketa nolako sistemaren bidez egitea nahi duten galdetuko dieten ala, aitzitik, nahiago duen, besterik gabe, denok ezagutzen dugun sistema, behartuta ezarri herritarren iritziari bizkar emanez. Esan behar baita, beren buruan duten sistema hori guztiz legala eta bideragarria dela. Udaletxeak eskubide osoa du herriari dagozkion gaietan ondoen iruditzen zaizkion erabakiak hartzeko; horretarako izan baitziren hautatuak eta ez naiz ni izango hori zalantzan jarriko duena. Oso gaizki geratzen da, ordea, mutrikuarrei, herriko kontuetan parte-hartzera deitzea eta, behingoz herritarrek gonbiteari baietz esan eta bustitzen direnean, zera esatea: oraingoan ez; gai hau garrantzitsuegia da zuek erabaki dezazuen, beharbada hurrengoan izango da. Eta hau guztia, udaletxe berri hau parte-hartzailea dela, herritarren iritzi zein eskabideak aintzat hartzen dituela, paparra harro-harro atereaz eta ozenki oihukatzen dutelarik. Ikusiak ikusita, horri, soilik komeni denean dela erantsiko nioke.
Horretan gaude; inoiz iristen ez den erantzunaren zain. Ikusirik, beraz, apaltasunak eta eramanpenak ez dutela deus lortu, estrategiaz aldatzea erabaki dugu, berriro ere, gai hau udaleko gai-zerrendan sartzeko ahaleginduko garelarik eta, bide batez, gogorarazi Alkate Jaunari ni eta sinadura eman zuten beste 1709 sinatzaileak, behinik behin, gure eskabideari zor zaion erantzunaren zain gaudela.

Felix Azpiazu Ulacia





K126:kalaputxi aldizkaria.qxd 14/03/13 21:55 Página 6



MUTRIKUKO PORTUKO ARRANTZA DARSENAREN BERRANTOLAKETA

Eusko Jaurlaritzako Portu Zuzendaritzak Mutrikuko kairako bi proiektu zituen, bata kirol-portuko antolaketarena (2003), eta bestea saneamendu sistemaren birgaitzea (2007). Hauek biak kontutan izanik, orain gauzatzera doazen proiektu berri bat prestatu zuen "Mutrikuko portuko arrantza darsenaren berrantolaketa gaurko premiei egokitzeko" izenarekin. Proiektu honetan kirol-portuaren antolaketa egokitu da, eta saneamenduaren zati bati helduko zaio.

Proiektuaren garapena Mutrikuko Portuaren Plan Bereziari egokitzen zaio, eta lurrean aldakuntza hauek izango ditu: Piñastegiko moilaren harri-botean betetze lana egingo da 45 metroko zabaleran –kofradi zaharrera arte–, eta bere gainean 23 aparkaleku berri egingo dira, orain dauden aparkalekuen parean, eta itsasaldera kotxeen maniobretarako lekua dutela. Jarraian, oinezkoentzako 1.500 m2.ko gune handia irekiko da itsas aurrera arte. Moilak hormigoizko horma bat izango du itsasoaren kontra harri-horma batek estalia inguruarekin bateratzeko. Astilleroko moilak gaurko egoeran jarraituko du; soilik saneamendu obrak egingo dira Plan Berezian aurreikusten diren eraikuntzei begira, baita ur, argi, gas eta abarreko instalakuntzekin batera.

Barneko kaia, orain bezala, ontzi txikientzat geratuko da, eta Intxirria hauen beharretarako.

Kirol-portutzat hartuko den zatian 208 atrakaleku egingo dira azaleko bost pantalanen bidez, 6 eta 10 metro bitarteko eslora duten ontzientzat, era honetan zatituta:

>Lehenengo pantalanean: 50 atrakaleku 6 metro luze eta 2,6 zabalekoak.

>Bigarren pantalanean: 26 atrakaleku 6 metro luze eta 2,6 zabalekoak, eta 23 atrakaleku 8 metro luze eta 2,8 zabalekoak.

>Hirugarren pantalanean: 23 atrakaleku 8 metro luze eta 2,8 zabalekoak, eta 20 atrakaleku 8 metro luze eta 3,2 zabalekoak.

>Laugarren pantalanean: 20 atrakaleku 8 metro luze eta 3,2 zabalekoak, eta 16 atrakaleku 10 metro luze eta 4,0 zabalekoak.


>Bosgarren pantalanean: 16 atrakaleku 10 metro luze eta 4,0 zabalekoak, eta 14 atrakaleku 12 metro luze eta 4,5 zabalekoak.

Pantalanak, dorretxo batzuetan, ur eta elektrizitate instalakuntzak izango dituzte, kudeaketa sistema zentralarekin komunikatuta kontsumoak kontrolatzeko. Pantalanak finkatzeko 508 milimetro diametro eta 10 milimetro duten tutu formako zutabeak erabiliko dira, itsas hondoan 2 metroko sakoneraino sartuak, eta + 6 metroko arteko garaiera izango dute.



LEA-ARTIBAI
Hileta zerbitzuak - Beilatokia
MUTRIKU Tel.: 943 60 41 20
ONDARROA: Arta Bide, 24 - Tel.: 946 830 960
Mug: 659 879 268

K126:kalaputxi aldizkaria.qxd 14/03/13 21:55 Página 7



Lanak Piñastegi aurreko moila izango den inguruko dragatzearekin hasiko dira. Marea behera puntakoren nibeletik – 2,5 metroko sakonera eman arte, ontziek arazorik gabe nabigatu ahal izateko, eta orain dagoen arranpara iristeko eragozpenak hutsean gelditzeko. 26 egun aurreikusten dira lan hori bukatzeko.

Aurreko lanak aukera eman ahala, moilaren pareta izango den hormigoizko horma eraikitzen hasiko dira +1 kotatik gora, harri-horma batez estalia. 38 eguneko lana aurreikusten da. Ahal den neurrian betelana egiten hasiko dira harri tamaina ezberdinekin. Lau hilabete eta erdi inguru aurreikusten dira aurreko lan guztiak bukatuta edukitzeko.

Ondoren, pantalanen oinarriak prestatzeari ekingo diote, eta instalakuntzak egiteari. Lan horiekin batera moilako zerbitzuen azpiegiturak prestatzen hasiko dira: euri-ur eta fekalen saneamendua, elektrizitatea, gasa, telekomunikazioak, argiteria eta suteen aurkako sarea. Zerbitzu hauen azpiegiturak prestatu ondoren, urbanizatze lanarekin bukatuko dute.

Pantalanen ezarpena eta urbanizatze lanak aldi berean bukatzea aurreikusten da. Hau da, sei hilabetean lanak bukatuta izango direla dago aurreikusita.

Proiektu honen gauzatzea 2.585.301,33 eurotan dago kalkulatuta. Diru horretatik kaiaren aldaketari 1.751.477,89 euro dagozkie, saneamendua egokitzeari 14.615,23 euro, eta gainerakoak gastu orokor, irabazi industrial eta BEZari atxikitzen dira.

OKILA S.L.
SUKALDEKO ALTZARIAK
EBANIZTERIA
OKILA AROZTEGIA S.L.
Txirritxa - Mutriku
Tel. 943 60 40 18 - Faxa: 943 60 31 03

ARRIETA
AUTOZERBITZUA
Aliprox
J.M. Altzibar etorbidea · 943 60 31 01

K126:kalaputxi aldizkaria.qxd 14/03/13 21:55 Página 8

EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNAREN INGURUAN BATUTA

Emakumearen Nazioarteko Eguna dela-eta, herriko zenbait taldek eta Udalak bat egin zuten eta aste guztirako egitaraua prestatu zuten. Besteak beste, aldarrikapena eta kultura bildu dituzte eta ekintza interesgarriak antolatu. Nabarmentzekoa doluaren inguruan antolatutako tailerra. Orokorrean balorazioa positiboa egin dute antolatzaileek, eta gizon eta emakumeen berdintasuna lortzeko bidean pausoak ematen jarraitu beharra dagoela gogorarazi dute.



500 LAGUNDIK GORA MUTRIKU EZAGUTZEN

372 ume eta 285 nagusi. Horiek dira Burumendik antolatutako ibilbide neurtua osatu zutenak. Ibilbide motza edo luzea egiteko aukera eman zieten, eta ia gehienek luzearen aldeko hautua egin zuten. Horrela, Mutriku eta bere inguruak ezagutzeko aukera eduki zuten hainbat eta hainbat lagunek. Gainera, parte hartzaileak bat etorri ziren Burumendiren antolaketa goraipatzerakoan. “Guztia egon da ondo antolatua; bidea, esaterako, oso ondo markatuta zegoen”, zioten askok.



DEPENDENTZIA DUTEN HERRITARREN TRATAMENDUA HURBILETIK ZAINDUKO DUTE AURRERANTZEAN

“Jende askok ez du dagokion tratamendua behar den bezala jarraitzen; medikamentuak bi aldiz hartzen dituzte, edo behin ere ez; medikuak agindutakotik kanpo aritzen dira…eta hori oso arriskutsua da. Eskuartean ditugun datuen arabera, dependentzia duten pertsonen %50az ari gara”. Horrenbestez azaldu zuen Gipuzkoako Farmazilarien Elkargoko presidenteak euren kezka nagusia. Orain, berriz, Udalarekin sinatutako lankidetza hitzarmenari esker, etxez-etxeko laguntza jasotzen duten herritarrek mendikamentuak egoki erabiltzea lortu nahi dute. Herriko farmazilariak izango dira 15 eguneko tratamenduak prestatuko dituztenak. Horretarako blister bereziak erabiliko dituzte, eta blister horiek behin eta berriz betetzeari esker, tratamenduaren jarraipena egiteko aukera izango dute, gainera.

KOMIKIXA

Josu Ituarte "Pitxame"ren eskutik



K126:kalaputxi aldizkaria.qxd 14/03/13 21:55 Página 9

KOLON KANTZERRARI AURREA HARTZEN

Kolon minbizia minbizi ugariena da emakume zein gizonezkoen artean. Hala ere, garaiz detektatuz gero, kasuen %90 senda daitezke. Hori ikusita, kolon kantzerraren prebentzioari lotuta saioa eskaini zuten Udal Politika Soziala Sailak eta Kantzerraren Aurkako Taldeak. Basque Culinary Centerreko sukaldariak izan zituzten lagun. Arantza Aranburu medikua izan zen bertaratutako 37 lagunei informazioa ematearen arduraduna. Gainera, kantzer mota horren prenbentziorako martxan jarriko den programaren berri ere eman zuen. Ondoren, sukaldariek janari osasuntsuak eta, aldi berean, gustagarriak egin daitezkela erakutsi zieten.



SORMENA ASTINTZEN HASTEKO SASOIA, BAINA MOTZ-MOTZIAN

III. Motz-Motzian film laburren lehiaketa hasi da bidea egiten. Eta lehiaketak orain artean eman ez duen aukera eskainiko die sortzaileei: adineka ez da berezitasunik egingo, eta hartara, gurasoek seme-alabekin batera egindako filma aurkeztu ahal izango dute. Lanak ekainaren 1era arte aurkeztu ahal izango dira, Kalaputxiko postontzian utzita. Sari banaketa ekainaren bukaeran egingo da. Hiru sari egongo dira aurten: Xiri Saria (epaileek erabakia); Herriaren Saria (emanaldira doan publikoak bozkatuko du) eta sari sorpresa. Galderaren bat egin nahi izanez gero, helbide elektroniko bi ipini dituzte antolatzaileek herritarren eskura: mutrikukozineforumtaldea@hotmail.com eta motz.motzian@gmail.com.

HASI DIRA LURJAUSIEN ONDORIOEI AURRE EGITEN

Samikolla inguruan izan ziren euriteen ondorioz sortutako bi lurjausi handienak: Samikolla eta portua lotzen dituen pareta eta Samikolla 15 parean gertatutakoa. Lehendabiziko pareta trinkotzeko Udala Eusko Jasurlaritzaren Portu zuzendaritzarekin harrremanetan dago. Bertako ordezkariak izan ziren herrian, eta gertaera bertatik bertara ezagutu ahal izan zuten. Udalak haiekin harremanetan jarraituko du paretaren konponketa euren esku uztera adostera heldu ahal izateko. Samikolla 15ean, berriz, kaltetua izan zen terrazatik goitik behera etorritako materiala kendu dute. Gainera, *Ikerlur* taldea malda sendotzeko egin beharrekoak definitzen ari da.

MERKATU TXIKIAK AURTEN ERE HERRITARREN ESKURA

Bertatik bertara, bertokoa eta sasoiko erosteko aukera edukiko dute herritarrek aurten ere. Izan ere, aurreko urteko arrakasta ikusita, aurten ere, hileko bigarren zapatuetan bertoko baserritarrek eta eurek ekoiztutako produktuek hartuko dute Beheko Plaza. “Sasoiko jateak duen garrantziaz gero eta jende gehiago ari da jabetzen; gainera, bide batez, bertoko ekoizleen lana ere dagokion lekuan jartzen dugu”, azaldu dute antolatzaileek.

KORRIKAK HERRIA MARTXAN JARRI DU

Korrika martxoaren 23an helduko da Mutrikura. Haren ongietorria prestatzeko hainbat ekimen antolatu dituzte Korrika Batzordekoek. Martxoaren 10ean MRK-k antolatutako kontzertua izan zen lehenengo ekimena. Martxoaren 15ean, berriz, Korrikaren aldeko kantu-afaria, sorpresa eta guzti. Hurrengo egunean euskarazko film laburrak ikusteko aukera izan genuen. Gainera, Koldo Almandoz zuzendaria ere bertan izan zen. Datorren asteburuan, erne! Badator Korrika! (Ikus 17 orrialdean).



K126:kalaputxi aldizkaria.qxd 14/03/13 21:55 Página 10

Arrain-lantegiak goiari eusten!

Yurrita e Hijos S.A. enpresak(1867) Calogero Billante S.A.(1870) erosi du

Urteak dira, gero, Yurrita eta Billante familiek euren arrain-negozioak martxan ipini zituztela gure herrian; sinistea ere hainbeste urteren ondoren bizirik iraun dutela! Bejondeiela bi familiei! Jakin berri dugu, 143 urte bete eta gero, hemendik aurrera Billante familiaren lantegia Yurrita e Hijos enpresaren parte izango dela.

Berri horren inguruan hitz egin dugu Jorge eta Juan Yurrita zuzendariekin, gaur egungo Yurrita e Hijos enpresaz arduratzen diren bosgarren belaunaldikoekin.





Egiguzue enpresaren ibilbide laburra.
Yurrita e Hijos S.A. Euskadiko kontserba-lantegirik zaharrena da, 1867an hasi baitzen gure birraitonaren aita arrain-negozioan. Harrezkero, bilakaera luze eta zabala izan du. Gure gurasoen garaian, enpresa hau aitzindari izan zen antxoa mundu osoan saltzen. Gerora, 2005. urtetik hona, instalazio berriak eraiki eta prestatutako janarigintzara zabaldu dugu jarduera, eta, 2009. urtean, kroketak egiteko lantegitxo bat erosi genuen Zumaian. Bi erabaki horiek hartu genituen produktu-aukera zabalagoa eskaintzeko merkatuari, batez ere, Espainiako merkatuari.

Berritu ala hil esaten diote horri, ezta?
Bai, halaxe da; geldirik egonda ez dago ezer. Baina horretaz gainera, gero eta zailagoa den merkatu global horretan lehiakorrak izateko, Perun arrain-lantegi txiki bat erosteko erabakia hartu genuen. Merkatuak ezartzen dituen prezioak gero eta estuagoak dira eta hemengo produkzio kosteak handiegiak; beraz, batezbestekoa egin eta kosteak jaitsi ahal izateko, ezinbestekoa dugu Peruko lantegia.

Ez al dio horrek lanik kentzen hemengo lantegiari?
Gauzak ez dira hain sinpleak. Merkatuak prezio eta maila guztietako antxoak behar ditu: Kantaurikoak, Mediterraneokoak, Argentinakoak eta baita Perukoak ere; antxoa-mota bakoitzak bere bezeria du, eta leku guztietan egon beharra dago. Horretaz aparte, produkzio-kosteak kontuan izanda, ez dago beste irtenbiderik. Kontuan izan azken 30 urteetan ez dela antxoa-lantegi berririk zabaldu; itxi, berriz, asko eta asko. Horrek erakusten digu hemengo

K126:kalaputxi aldizkaria.qxd 14/03/13 21:55 Página 11

produkzio-kosteekin ezinezkoa dela merkatuan lehiatzea. Gure konpetidoreek eskulan merkea daukate hemengoaren aldean, eta alde horretatik ezinezkoa da Mutrikun dugun lantegiak bizirik irautea Perukoaren laguntzarik gabe. Enpresa osotasunean ikusi behar da, eta, gauzak garbi esanda, ahalegin eta estrategia askoren beharrean gaude herrian dugun lantegiari eusteko.

Azken erabakia: Calogero Billante S.A. erostea.

1950 inguruan laga genion kontserba egiteari; ordura arte, antxoaz gain —antxoa gazitu egiten da; kontserbak, egosi eta esterilizatu— beste arrain batzuekin ere egiten genuen kontserba: atuna, hegaluzea, betandia, txitxarroa eta abarrekin. Garai hartan utzitakoari berriro ekin nahi genion, eta horrexegatik erosi dugu Billantetarren lantegia. Izan ere, azken urte hauetan antxoa bakarrik landu arren, Kantauriko hegaluzea ere komerzilizatzen genuen LOREA eta YURRITA markekin.

Zer premia ditu erositako lantegiak?

Orain, beharrezkoena, “formato oval” esaten zaiona martxan ipintzea da. Diru-inbertsio handia da, baina derrigorrezkoa, guk lehendik saltzen baitugu hegaluzea lata-mota horretan. Geure produktua egin nahi dugu, eta horrexetarako erosi dugu lantegi hau. Oraingo plantila mantendu eta lantegiari indar berria ematea da gure asmoa; horretarako, Yurritaren sare komertzialaren barruan sartuko dugu Calogero Billantek egindako atun eta hegaluze kontserba.

Badakigu zaila izango dela enpresa hau hazi eta emaitza positiboak emateko bidean ipintzea, baina uste dugu gai izango garela 1870ean sortutako lantegiari etorkizunerako bidea zabaltzeko; horretarako denon borondatea eta elkarlana behar dugu: enpresarena, langileena eta denon aportazioa, baita Udalarena ere.

Zertan lagun lezake Udalak?

Mutrikuko industria gunerik zaharrenean gaude, Txirritxan, baina oraindik ere Plan Partziala osatu gabe dauka Udalak. Horren ondorioz, berritze- eta handitze-lanak egin nahi izan ditugun guztietan: kamara frigorifikoak direla, janari prestatua egiteko instalazio berriak direla, eta abarretarako baimenak eskatu izan ditugunean, ezetza jaso izan dugu beti. Azkenengo, orain dela bi urte: beharrezkoa dugun kamara kongeladorea egin nahi genuen, eta Udalak ezetza eman zigun. Ezer egin ezinda gaude, eta horrela jarraituko dugu plana onartu artean. Plan Partzial hori aurrera ateratzeko, borondate politikoa behar da.

Krisiak ere izango du eraginik, ezta?

Banketxeek murriztu egin dute asko maileguak ematea, eta egia esan behar bada, lantegia erosi ahal izan dugu Billante familiak laguntza finantziarioa eman digulako: urte batzuetan epeka ordaintzeko tratua onartu ziguten; bestela, ez geneukan inolako aukerarik. Baina, horretaz gainera, esan behar da Yurrita enpresaren akziodunok geure ondasunekin abalatu behar izan dugula banketxeak utzitako dirua. Erronka handia dugu eskuartean, eta arriskua ere bai, jakina; gaur egungo egoera ikusita, gehienbat.

Nola doaz gauzak orain artean?

Hazi egin gara azken urte hauetan, batez ere, Espainia-mailan. Oso-oso etekin txikiekin ari gara lanean, eta bezerorik ez galtzea da gure helburuetako bat. Promozio-lan handia egiten ari gara eta merkatu berrietara zabaltzen: Espainiako ia kate guztietan sartu gara, eta atzerriko merkatua mantentzea ere lortu dugu.





AIZKORAK BADU ETORKIZUNA

Aizkolari profesionala izan da Iturritzako Fausto Mugerza, eta haren bidea jarraitzea erabaki zuten Ugaitz eta Aratz semeek. Azkeneko urte hauetan, hainbat txapelketa eta erakusketatan ikusi ditugu. Oraintsu, bata Urrezko Aizkora txapelketan eta bestea Zilarrezkoan ikusteko aukera izan dugu. Aizkoraz enborra moztea baldin bada egin beharreko lana, ondo asko betetzen dute Mugerzatarrek.

Zer moduz azkeneko txapelketak?

Egia esan, ez dira nahi bezain ongi amaitu, finalerdietan ez genuen lortu bikotean onena ematerik —dio Ugaitzek.

Aratzek: “Egun batean jokatzen genuen dena, eta oso egun kaxkarra izan genuen, nahiz eta entrenatzen gustura aritu ginen”.

Ugaitz, aurreko urteko bikote berberak kanporatu zaituzte… “Bai, egia da; Otaño eta Otaegik. Eta egia esan, aurten minutu batzuen aldearekin. Hala ere, ikusi da bikote indartsua dela, aurten ere finala irabazi baitute”.

Nola osatzen dituzue edo dituzte bikoteak?

Jokatu berri ditugun txapelketa horiek enpresa pribatu batek antolaturikoak dira; ez federazioak. Beraz, antolatu dituenaren esku gelditzen da bikoteak nola osatu.

Begi bistakoa baldin bada ere, hasiera… “Etxean besterik ez genuen ikusten: aizkora! Aitarekin joaten ginen alde batetik bestera, erakustaldi zein txapelketetara. Beraz, ez da zaila bide hori aukeratzea” —dio Ugaitzek.

Aratzek: “Nik hala eta guztiz, harria aukeratu nuen lehendabizikoz; harrijasotzen hasi nintzen, orduan gehiago gustatzen baitzitzaidan. Baina etxean

Joseba Iñaki Eleizgarai
masajista eta osteopatia
Tel: 630 788 059 - Konte kalea 22, Mutriku

BERISTAIN
DENDA LURRINDEGIA ESTANKOA
943 60 35 44

K126:kalaputxi aldizkaria.qxd 14/03/13 21:55 Página 13

anaia eta aita egunero aizkoran ikusita, ba nik ere bide hori hartu nuen”.

“Goi mailan, puntaren puntan egoteko kualitate batzuk izatea beharrezkoa da; nahiz eta teknikoki oso prestatua egon”

Beste kirolik, bai?
Ni (Ugaitz) plaieruetan ere ibili nintzen. Aste bukaeretan partiduak jokatu beharra izaten genuen, eta ondoren nire erakustaldiak egitera joaten nintzen. Baina aukera bat egiteko momentua ere heldu zitzaidan. Sasoi hartan, gure bailarako ermitan monagillo lanak egiten nituen, eta ongi gogoratzen dut Miguel Angel Basurkok (gure apaiza zenak) esan zizkidan hitzak: “Ugaitz, edo futbola edo aizkora, baina biak ezin dira”. Hamar/hamaika bat urte nituen orduan. Eta, azkenean, aukeratu beharra izan nuen. Gaur beste jakin izan banu, agian futbola aukeratuko nukeen —dio Ugaitzek irribarrea ahoan duela.
Aizkora ez balitz… “Pilota edo, aipatu dudan bezala, harria” (Aratz).
Ugaitz: “Nik damu horixe daukat, pilota probatu ez izana. Asko gustatzen zaidan kirola da-eta. Umetan nola ez zaren erabakiak hartzeko gai, ba… eta gurasoek ez bazaituzte pixka bat bultzatzen, ba… damu horixe daukat nik”.

Aizkorak zer eskaintzen dizue?
Irabazitakoan, poza; eta, galdutakoan, disgustua —dio Aratzek. Momentu zail asko eta haserrealdi edo kabreo asko ere bai. Horrez gain, lan asko.
Entrenamendua prestatzeak ordu eta erdiko edo bi orduko lana eskatzen du, ondoren “kuadradilluak” josi, egurra ebaki eta hurrengo egunean guzti hori jaso behar duzu. Eta gelditzen den egur guztiarekin zerbait egin behar da; hura ezkutatu egin behar da. Egurra jartzea sekulako lana da. Urtearen bukaerarako luze joaten da. Pagoa erabiltzen dugu, eta Nafarroako zerratoki batetik ekartzen dugu.
Horrez gain, aizkora prestatzea ere asko kostatzen da. Hamar aizkora prestatu ditzakezu, zure ustetan denak berdin; bakoitzak ezberdin moztu lezake, ordea. Azkenean, lana eta gastua.

Nola egiten dituzue entrenamenduak?
Astean zehar, txapelketetan gauden momentuan behintzat, bi alditan entrenatzen dugu aizkoran. Horrez gain, gimnasioko lana ere egiten dugu. Eta fisikoa mantentzeko mendian ibiltzen gara; gehiegi ibiltzea ere ez zaigu komeni, ordea, pisua galtzen baitugu.

Goi mailan, puntaren puntan egoteko, kualitate batzuk izatea beharrezkoa da; nahiz eta teknikoki oso prestatua egon, norberaren gorputzak lagundu beharra dauka goi mailara heltzeko eta mantentzeko. (Gorputzak, bere tamainan, baina sendoa, indartsua izan behar du). Gure genetikak ez dakit asko laguntzen digun; gure giharren tamaina ez dakit nahikoa den, ez da garatzen. Horixe da gure akatsa! Bost edo hamar kilo gehiagorekin…

Zutikako enborra ala etzandakoa?
Etzanda, etzanda.

Federazioak?
Fitxak besterik ez ditu egiten. Eta bi txapelketa antolatzen dituzte, bata Gipuzkoa mailan eta bestea Euskal Herri mailan. Lehendabizikoan bi maila daude eta bigarrenean hiru.

Txapelik, bai?
Biok bikote ginela irabazi genuen Zilarrezko mailan txapela. Azkeneko hiru urteetan Zilarrezko mailan txapeldunorde ere izan gara —dio Aratzek— baina beti atearen sarreran gelditzen gera. Hala eta guztiz, aipatzekoa da lehen mailan behintzat, txapeldunak hogeitahamar urtetik gorakoak izan direla. Agian, gorputza zailduta edo… teknika ongi menperatuta, ez dakit… —dio Ugaitzek.

Aurrerantzean erakustaldiak ere izango dituzue, bada?
Erakustaldiak azken boladan gutxitu egin dira; krisia dela eta! Apustuek jende gehiago mugitzen dute, nahiz eta dirurik ez mugitu. Hurrengo txapelketak banakakoak izango dira.

Afiziorik ba al dago? Etorkizunik, bai?
Azkeneko lau/bost urteetan nahiko itxuratu da. Gazte jendea badator eta, gainera, maila politarekin.

Edari biltegia
Iñarrairaegi
Tel./faxa: 943603938 · Etxekoa: 943603893 · Sakelekoa: 609413306 · "Mendi azpi" · 20830 MUTRIKU

Gizonezkoen ileapaindegia
IMOTZ
Erdikokale, 34 - behea MUTRIKU Tel.: 943 60 41 62

K126:kalaputxi aldizkaria.qxd 14/03/13 21:55 Página 14

Motxailliak gurian



Mutrikuarrak *lapazorrixak*, ondarrutarrak *lantzoiak*, debarrak *tariñak*... eta mendaruarrak? *Motxailliak* esaten dixeu gure auzo-herritxarrei. Zer dala eta? Sasoi baten ijitxo edo motxaille asko ibiltzen zalako paraje hortan. Aurten, martxuaren 9xan, zortzigarren aldiz ospatu zeuen Mendaron *Motxaila Eguna*. Goizian, "Aitz Beltz" kobazulora juan ziran; ipuiñak, bertsuak eta musikia entzun ostian, eguerdixan, bazkari berezixa egin zeuen Gaztetxian.

Mutrikun *motxailliak* edo *ijitxuak* esaten zakue garai baten herririk herri ibiltzen ziran "jitanuei". *Motxaille* izena lanbide batekin do lotuta, izan ere, *moztailliak* ziran gure herrixetara etortzen ziran ijituak, ardixei, zaldixei eta astuei illia moztutzen zixuen.
Ijitxo/Ijito hitza, erderazko *gitano* hitza bezela, *Egipto* deu oiñarrixan: Egipto>Egi(p)to>Ijito; Erderaz, egiptano>gitano. Hanguak al ziran? Ez, baiña kontua da orain urte asko pentsatzen zala ijituak Egiptotik etorritxakuak zirala. Antzekua pasatzen da Ipar Euskal Herrixan ematen dixuen "buhame" izenarekin. Txekiar Errepublikako *Bohemia* eskualdekotzat zakezen ijituak sasoi baten. Itxura danez India aldetik etorri ziran Euskal Herrira ijitxuak, XV. gizaldi inguruan.

Historixak esaten digunez, bihar bada bildurragaitxikedo, mesfidantzaz ikusi izan ditxugu ijitxuak, eta askotan baztertu egin ditxugu. 1851n Mutrikun egindako batzar nagusiek erabaki zeuen probintziatik kanporatzia bizibide ondraturik ez zaken ijitxuak. Aurrerago –1855 urtian– helbide jakiñ bat eukitzia exijitzen zakuen Gipuzkuan bizi ahal izateko.
Ijitxuen kontrako jarrera gordiñaren adibidia topau zoan Fausto Arozena historialarixak Mutrikuko artxibuan: itxura danez, ijitxo bati zigor ikaragarrixa jarri zixuen, suarekin markau zeuen. Esan biharrik ez do motxaillien artian gaiñerako hankabikuen artian bezela, pertsona onak eta gaiztuak egongo zirala...

Esan degun bezela, Mendaron ugarixak ziran ijitxuak aspaldi, baiña Mutrikun ere toki askotan ikusi zeikezen. Famelixa osuak ibiltzen ziran batetik bestera karruak hartuta. Zaldixak eta astuak ere eruaten zitxuen eurokin. Beuren gera-tokixak eukitzen zitxuen: Ondabarro aldian, Saturraranerako bidian Etxeberri baserri aldamenian zauan kobazuluan, Ikusaratz aldian, kanteretan... Mutrikuko baserri batzuetan ere, tejabana edo teillatupian, gau bat baiño gehixo pasautakuak dira motxailla-famelixa asko. Etxeberria abizenekuak ziran Mutriku aldera etortzen ziran ijitxo gehixenak.

Mutrikun, zesteruek *gaztaiña makatza* ibiltzen zeuen normalian otarrak-eta egitxeko, baiña Astigarrabixan esan diguenez, lan hortan jarduten ziran motxailliek errekaldian batutako *zumak* ibiltzen zitxuen zestuak eta otarrak egitxeko. Zeozegaitxik esaten zixuen toki askotan holakuei "ijito-otarrak".
Ijitxuak, "motzailliak" izatiaz gaiñera tratantiak ere izaten ziran. Astuak eta zaldixak erosi eta sal du egitxen zitxuen. Baten batek esan digunez, asto zaharra erosi, moztu, preparau eta gaztia balitz bezela saltzen zeuen. Astuak eta zaldixak osatzen ere oso abillak ei ziran. Mutrikun batutako *ijitxuen erremeixuak* dira honek: astua ondoezik dauanian, jateko gogorik gabeeta, intxaur orrixak batu, egosi eta harekin baiñatu bihar da astua. Mando eta astuen azaleko urratuak eta erriak saniatzeko, berriz, beste hau jaso degu: eskutada bat pasmo bedar, eskutada bat intxaur orri, *pipurrutx* pixka bat eta txarri koipia...
Baserririk baserri eskian ibiltzen ziran, ijitxo asko.

Sasoi baten, Mutrikura etortzen ziran ijitxo gehixenak euskaldunak izaten ziran, eta deigarrixena zan oso hizkera berezixa ibiltzen zeuela. Oso azkar hitz egitxen zeuen, eta hitz batzuk oso ezberdiñak ziran. Itxura danez, azkar hitz egitxeak motxailliak ez ziranek ez ulertzeko bidia zan hasiera baten... Olaberrietako Erdikua baserrikuek oraindik gogoratzen ditxuez hitz solte batzuk: *Kania txoatu* 'oillua lapurtu'. Lapurretan-edo harrapatzen bazitxuen, *Najare gaituk gaur, najare*. Esanez bezela, 'galdu gaitxuk'.

Askotan ahaztu egitxen bazaku ere, geure modukua ez dana errespetau eta ondo hartu bihar da. Geure aitxona-amonek bazakixen zeozer horretzaz.

Josu Larrañaga Arrieta

K126:kalaputxi aldizkaria.qxd 14/03/13 21:55 Página 15

Gure errotak



Amieta errota

eta jabeen betebeharrak

Mijoa erreka utzita, Artzainerrekatik gora abiatuko gara. Askok pentsatuko dute erreka honen izenak zerikusiren bat izan dezakeela artzain edo pastoreekin. Oker daude horrela pentsatzen dutenek, izan ere XVI. mendetik oraintsura arte *Arçeraen* edo *Arzerain* izenez agertzen zaigu gure artxiboetan. Arzeraen > Artzerain > Artzain. Erreka ez ezik inguru osoa izendatzen ere zuen toponimo horrek. Dena dela, ez da erreka horrek izan duen izen bakarra, izan ere mutrikuar askok oraindik esaten diote *Sorginerreka*. Izen eder hori 1608ko dokumentu batean irakurri dugu lehen aldiz (*Sorguin erreca*); urte berean, "*arroyo de los molinos*" izendapen esanguratsua aurkitu dugu. Erreka honetako lehen errota dugu Amieta. Artzainerrekaren ezkerraldean dago.

Lehen aipamenetik oraintsura arte *Amiata* izena izan da nagusi idatzizko dokumentazioan: Amjata (1492), Amyata (1558, 1572), Amiata (1598, 1616, 1794, 1816). Baina ez da atzo goizekoa gaur egun erabiltzen den *Amieta* izena: Amieta (1620), Amietei (1928)... Ahoz, *Amieta bekua* eta *Amieta zaharra*. Kontuan hartu behar dugu, gorago, Agirre baserriaren ondoan, Amieta izeneko beste baserri bat dagoela.
Lehen aipamena 1492. urtera garamatza. Urte horretan, Juan Gonzalez de Meceta zen errotaren jabea.
1691n Francisco de Gaztañetak eta Maria de Larangak, beste jabetza batzuekin batera, errotaren erdia eman zieten errentan hiru urtez San Joan de Echea eta Augustina de Urcareguiri. Errenta: 10 anega gari, anega 1 arto, 3 kapoi eta sagastiek ematen zuten sagarra erdi bana.

Komenduko mojek errota honen zati baten jabetza izan zuten luzaro, 1572 urtetik (Joan Ochoa de Berriatuak dohaintzan eman zienetik) 1699ra arte. Azken urte horretan komenduko mojek errotaren laurden bat saldu zioten Alonso Andonaeguiri, zilarrezko 100 dukaten trukean.

1710ean errotaren hiru laurdenak eman zizkieten errenta enfiteutikoan Antonio de Yrametegui eta Maria de Ainçurizari. Urteko errenta: 7 anega gari, anega 1 arto eta 2 kapoi. Balditzetan jasotzen denez, hiru urtez jarraian errenta osoa ordaindu ezean errotaren gaineko eskubide guztiak galduko zituzten. Beraz etxegabetzea edo "*deshaucio*" delakoa ez da kontu berria.

1816an Juan Bauptista de Andonegui eskribauak, 1.925 errealeko prezioan, bere errotaren laurden bat saldu zien ordura arte hiru laurdenen jabe izandako senar-emazteei: Juan Bauptista Barinaga eta Mª Concepción de Zubizarretari.

1895ean igeltsoa ehotzeko errota bihurtuta ageri zaigu Amieta, izan ere ordurako etxearen hegoaldean igeltsua erretzeko labea zeukaten. 1928an Barandiaranek ez du erroten zerrendan sartzen, ordurako errota izateari utzita egongo zelako.

Ziur aski lau errotarri izan zituen errota honek, 1492an *molinos de Amjata* aipatzen direlako eta 1710ean *cassa y molinos de Amiata*.
Amieta etxeak gaur egun zutik dirauen arren, makineria guztia kenduta dauka, eta ur-ontzia lurrez beteta. Ura ekartzeko erabiltzen zuen 300 metro inguruko kanalaren zati batzuk ikus daitezke. Esan bezala, errota honek ura Artzainerrekatik hartzen zuen, Txartxa errotatik gertu zegoen presa batetik, hain zuzen ere. Amieta errotako errotarri bat etxearen kanpoaldean dago, mahai bezala.

Errotaren jabearen betebeharrak
Askotan, errotaren jabeek eurek konpontzen zituzten errentan utzitako errotak, horrela agertzen da 1698ko kontratuan: "*y en quanto a las maechuras assi menores como mayores [...] se ha de oservar la constumbre que en razon de ellas se guarda...*". Matxurak Francisco de Gaztañeta jabeak konpondu behar zituen kasu horretan. Hori egiteko ohitura zegoen Mutrikun. 1794ko kontratuan berriz, horrela agertzen zaigu: "*las obras mayores son por [cuenta de] los otorgantes y las averias y obras menores por los inquilinos*".
Batzuetan, kontratu horietan irakur daitekeenez, jabeak, errotarekin batera astoa ematen zien ehotako irina bezeroei banatu ahal izateko. 1691n horrela irakur liteke: "*y le aya de dar jumento para el acarreto de los çurrones...*".

Javi Castro eta Josu Larrañaga



JAZZA ZURIAREN GAINEAN

Zer den jazza erranen dizut:
betikoa whiskya den hiztegi bat, den hiztegi bat (...)

—Eta zer izan daiteke besterik? Hala dio kantuak eta nor gara gu jazzaren hitz goxoei aurka egiteko? Hiru zisneak, alde batetik bestera, antzarak euren jokoan bezala apika, jazzaren erritmo eta mezuak zabaltzeko daude, ez haiei aurka egiteko. Halaxe pentsatzen dute gure hiru zisneek, 22.2, ez ahaztu, irratiko zisne urmaela, zuen ogi apurrei esker bizirik. Halaxe pentsatzen du ahots honek ere, Susana Q, eta halaxe pentsatuko du hurrengo gure gonbidatuak, ezta? Bere beluntasuna Paradisoko jazzaren erritmo biziekin batu berri duena bere azken liburuan. Arrats on, Harkaitz.

—Arrats on entzule guztioi. Eta noski, Susanari, ahots sudurkari horren nota higikorrei.

—Neil Armstrongen ilargiratzea, Lennonen hilketa... sepia kolorea hartu diogu nobela honi.

—Bai... baina ez bakarrik. Tronpetaren horia, polizia film zaharren beltza, Alaskako zuria... kolore asko nahasten dira. Kolore asko ditu jazzak.

—*The train through your eyes*, diozu. Tren koloreanitza al da istorio hau?

—Bai, nolabait. Amaiera kontatzen da lehen kapituluan. Eta horren ostean, flashback bat, Bob Ieregiren kontuak, Alaskako bizitza, ametsak... hainbat plano, hainbat eszena nahasten dira, fragmento, elkarren artean, Bob Ieregiren istorioak daramala erritmoa eta inguruko amets, zati guztiak, etengabeko soloa bailiran. Trena tunelean bezala; argi izpia begi ninian barneratzean bezala. Bidaiariak hasieran ez du igartzen nondik doan baina igaro ostean ikusten du zein den mendia, zeinena den begia, non dagoen. Antzeko irakurleak.

—Eta zein da etengabeko erritmo hori? Nor da Bob?

—Bob tronpetajotzaile estatubatuarra da, bere lagun min Nikolasekin batera jazzetik bizi dena. Bestalde Clara Miao dago, bere maitalea...

—Denok behar ditugu lagun minak eta maitaleak, ezta?

—Bai... [irribarrea]. Bada jazzaren bizitzetako bat da Bob. Hala bizi da. Beluna Moon izeneko lokal batean jo, Europatik biran ibili... eta... bizitzak ia biniloek beste bira ematen ditu, eta Alaska izeneko psikiatriko batean sartzen dute...

—Alaska, zuritasunaren etxea... Edo agian besteen belztasunaren artean zuriegi, ezta?

—Baditu zine beltzaren ukituak: hasierako krimena, errebolberra...

—Eta noski, Alaskako jendea, Joe boxeolaria, Anatol estrangulatzailea... eta Bobek Jack Nicholsonen papera.

—Ez dago asko esan beharrik. Musikari frustratua naiz. Eta azken batean, pelikulak egiteko dirurik ez dudalako idazten dut. Bi zaletasunen uztarketa hutsa da.

—Hutsa ere ez... Charlie Parker, “El perseguidor”... Eta hau dena zertarako?

—Musika letrek idatz dezaketela frogatzeko; metaforen eta irudien akorde maiorrak eta minorrak aurkitzeko... Eta noski, jenialtasuna, gainbehera, eromena, bakardadea... artearekiko maitasunen arabera bizitzeak dakartzanak presente daude nobelan.

—Horixe, beraz, gaurko proposamena. *Beluna jazz*. Artez eta arteaz eginiko liburua. Geure artea. Musika. Ez ahaztu, gure musikaren hiru zisneak, 22.2, hiru moko eta aho bat, Susana Q, zuen zerbitzura, beti. Harkaitz, ordea, gero eta sarriago izatea espero, baina oraingoz nahiko. Eskerrak alboan izateagatik. Ea noiz egiten duzun jazzetik blusera salto.

—Jazza, blusa... ea denok twist dantzan jartzen zaituztedan. Hurren arte.

—Baina adiorik ez zuri, entzule. Gera zaitez nire ahotsaren alboan. Hurbil, beti egin ohi duzun legez, janaria prestatzen edo autoan hilotz bat garraiatzen. Zure lekua, radio Paradiso. Nire ahotsa. Eta jazza.

O Mrs. Smithers' flowers Mrs. Smithers' poor flowers...

Aitor Lizardi Ituarte

K126:kalaputxi aldizkaria.qxd 14/03/13 21:56 Página 17

aek 18.korrika

MARTXOAREN 21ean

16:00etan KORRIKA TXIKIA. Bukaeran Jaia Zabiel Plazan

MARTXOAREN 23an KORRIKA EGUNA

08:26etan Korrikaren Lekukoa hartuko da KATETXEN ONDOREN
09:00etatik aurrera TXOKOLATEJANA Beheko Plazan.
12:00etan EMAN EUSKARA ELKARRI
Giza katea, Goiko plazatik hasita.
12:30etan KANTUJIRA. Danontzat Goiko Plazan.
17:00etan GIPUZKOAKO ZESTAPUNTA FINALA:
Alebinak eta infantilak Miruaitz Frontoian.
19:00etan MUSIKA BANDAren emanaldia
20:30etan LARRAIN DANTZA Goiko plazan.

MARTXOAREN 24an BAIONARA!!!

KORRIKAREN BUKAERAKO JAIA
09:30etan AUTOBUSA. Txanbolingo Atarixan
TIKETAK SALGAI: 10 EURO. Agerretxo - Loretxu - Zubiaran - Zubixa- Txalaparta.

aek 18.korrika

EMAN
2013ko martxoaren 14tik 24ra
EUSKARA
Andoaindik Baionara
ELKARRI

KORRIKA martxoaren 23an pasako da mutrikutik. Goizeko 8:26etan hartuko du mutrikuk lekukoa (Katetxen) eta 9:18etan debarren eskuetan utzi (zubi ondorengo errotondan). 8 kilometro izan arren talde ugarik hartuko du parte korrikan:

AMEIKUTZ-MUTRIKUARRAK
ANAIARTE BILTOKIA
ARRAUN TALDEA
ARTE ESKOLA
ATHLETIC-EN LAGUNAK
BERDEAK
BERTAN
BERTSO ESKOLA
BURUMENDI MENDI ELK.
DANOK BAT PELOTA ELK.
E.A.J.
ERRALDOIEN KONPARTSA
ERREALAREN LAGUNAK
E. H. BILDU
EZKER ABERTZALEA
GOIZEKO IZARRA ANTZER. T.
GOIZEKO IZARRA IKASTOLA
GURE AMETSA DANTZA T.
HERRIRA
HITZA
IDURRE GURASO ELKARTEA
INSTITUTUKO IKASLEAK
INSTITUTUKO LANGILEAK
KALAPUTXI
M.F.T.
M.R.K.
MUGA
MUSIKA BANDA
NATUR TALDEA
MUTRIKU 0 ZABOR
SAN MIGUEL IKASTETXEA
SATURRAN GURASO ELK.
SOKATIRA TALDEA
SORGIN ERREKA ESKALADA
TXANTXANGORRI
XAKE TALDEA
ZABIEL ESKULAN TALDEA
ZINE FORUM TALDEA

K126:kalaputxi aldizkaria.qxd 14/03/13 21:56 Página 18



AUTOBUSA BURURAKO PARENTESI

Doinua: Egañaren Bandoaren moldaketa.
Bi puntu gehiago hasieran.
Egilea: Imanol Lekunberri

1
Hainbeste ordu lanean pasa
nekea eta kafea
ta hala ere bukatu behar
nuena ez da bukatzea…
Franck eta Hertz-en saiakuntzaren
aurkezpena egitea
neu ulertzera heldu naizen
zerbait ulertaraztea
beno ahaztu alperrikan da
orain bueltak ematea
ez ote da askoz hobea?
Autobuseko tarte honetan
ikasketak ahaztea?
zeure burutik igarotzen den
hori entzuten jartzea.

2
Egunkaria atera eta
konturatu berehala
CIU-Artur Mas irabaztetik
urruti geratu dala.
Hauteskundeak atzo baziren…
gaur hogeita sei, aibala!
Okelarreko bertsopaperak!
egin behar ditudala:
Gaia, doinua, errimak, forma
ta guztia berehala
gainera originala
iraultzailea, apurtzailea
aise destaka dezala
parean dudan “Bellas Artes-ko”
tipa bitxi hau bezala.

3
Itxura “raro” bezain polita
tipa bitxian gisara
iraultzailea hori da hitza
hortik has gaitezen bada.
Nahikoa drama exageratu
idatzita dago jada
errepresio, herrimin, krisi,
munduko gosea laga
laga maitasun, sexu, intriga
ez jo topikoetara
eta begiratu hara!
Topikoetan ez erortzea
topikoa ez al da ba?
marasma bere sarean legez
zeure tranpan jausi zara.

4
Ana Urrutiak gaur ere kale
hain dago zeru garbia
berriz alperrik mendiko botak
alperrikan aterkia
berriz gelditu, berriz atea
berriz “barik”-aren “pi”-a
Okelar utziz Masen alboan
errimek galdu haría
sartu denean gona beltz estu
ezpain ta ile gorria
zeinen erakargarria
ta berehala otu zait plana
bera, ni ta afaria
lortu behar dut mutrikuarrik
hoberenaren saria.

5
Lagunak musu eman dio ta
alperrik ilusioa
alperrik sari, afari, txapel
Arguiñano, “talaso”a
oroitu lana –energiaren
mailen kuantizazioa-
Oroi maisua hain da zorrotza
nazkatzera perfektoa
hain metodiko, automatiko
erloju atomikoa
baino puntualagoa
mundua zehatz ikusi nahian
darama bizi osoa
nola azaldu gizajo horri
zehatzaz haragokoa?

6
Nola azaldu gurasoekin
etengabeko gatazka?
Ikasketaren zentratzeari
esan diozula basta!
Nola esplika urrutiago
sentitzen duzula “baska”?
lau doktoratu ta ezin uler
lanerako asti falta
neureganatuz “SuTa”ren hitzak
“ematen didate nazka!”
Erruz beldurra aplasta
maisuak baino zeure buruak
beldurtuago baitzauzka:
-ez dut nahi izan neuk aukeratu
Dudan bide baten bazka-.

7
Bus”a iritsi EHUra
parentesia bukatu
Mas Okelar ta ile gorria
kakotx artean ahaztu
imajinazio, bertso, ideiak
teoremekin urkatu
neu ere mundu zehatzagotan
zenbaki artean sartu
neure ideiak nolabaiteko
plantiletara behartu
neure burua mugatu
zentzurik ote formula zorrotz,
ekuazio, aldagai, datu
neuk eginiko korapiloak
ezin baditut askatu.

K126:kalaputxi aldizkaria.qxd 14/03/13 21:56 Página 19

Hormonen gorabeherak



Kaixo, guztioi… Aste honetan telebistako kate batean entzun dut antisorgailu hormonal batzuk (hasiera batetan anti-akne gisa erabiltzeko gomendatzen zirenak epe luzera izan zitzaketen efektuengatik) errebisatzen ari direla. Izan ere, Frantzian 4 emakumeren heriotzarekin zerikusia dutela uste dute. Nik antisorgailu hormonalak erabiltzen ditut eta orain beldurra ematen dit… Ba al dago antisorgailu ez hormonalik?

Lehenik eta behin, esan behar da arreta, zuk diozun bezalaxe, antisorgailu konkretu baten gainean ezarri dela (Diane 35, Bayer markakoa) eta, ondorioz, karga hormonal baxuagoa dutenak ez dutela horrelako arriskurik… nahiz eta egia den askok diotela epe luzerako efektuak ez daudela argi. Kontuan izan dezagun egun epe luzeagoan eman daitekeela erabilera, haurdunaldia sor dezakeen topaketa erotikoa gero eta lehenago ematen omen baita, eta lehen seme/alaba izateko data gero eta gehiago berandutzen dugula gure biografiotan.

Beraz, egia da ia mende hasieran “salvavidas” gisa agertu zen tresna hau orain jada tentuz ikusten dela, bere karga hormonala edozein delarik ere, eta, batez ere, eman zaion erabileragatik[1]. Beste gauza batzuekin bezalaxe, bere argiak eta itzalak baloratu beharko ditugu erabiltzea aukeratzen badugu.

Sar gaitezen orain antisorgailu ez hormonalen ildoan. Fidagarritasunetik ikusita, kirurgia bidezkoak eta preserbatiboa dira gomendatuenak. Baina kirurgia, normalean, atzeraezina denez, ez da erabiltzen seme-alabarik izan ez dutenengan… badaezpada.

Preserbatiboaren inguruan, zer esan? Guztiok ezagutzen dugu eta badakigu barrera-metodoa ere badela. Beraz, mitoak alde batera utziz, web bat gomendatzen dizugu, non merkexeagoak badiren, baita latex gabekoak ere[2].

Beste aukera gisa ditugu orain “hi-tech”ez mozorroturik Clear Blue-ren eskutik bueltatzen ari zaizkigun metodoak, “metodo natural” gisa ezagutuak izan direnak. Metodook hileroko ziklo erregularra eta autoezagutza maila altua eskatzen dute. Izan ere, batzuetan kurtso eta ikasketa asko burutu behar dira. Eta, nola ez, zientifikoki fidagarritasun txikiena dutenak dira.

Azkenik, badaude beste metodo batzuk, tira, metodo baino gehiago “bideak”. Asorgailuak dira hauek… a ze hitz arraroa! Baina dirudiena baino errealitate sinpleagoak ezkutatzen ditu bere atzean. “Sortze” gaitasuna bikote heterosexualean eman daiteke, logikoa den bezala (aiii, ze inbidia, homosexualak prebentzioaz “soilik” arduratu behar dira-eta! hori bai abantaila!!). Are gehiago, sortze gaitasun hori topaketa erotikoen barruko gestu konkretu baten bidez soilik eman daiteke.

Bikotean bizi ditzakegun plazerretan pentsatzerakoan, ordea, hain dira anitzak! Baita topaketa erotikoaren alde intimotik aldentzen ez bagara ere. Ez dugu hemen zerrenda bat egingo, bakoitzak bere bikotearen barruan dituenak ezagutuko dituelako.

Tamalez, zerrenda hori batzuetan hierarkizatu egiten da, eta keinu bakoitzak posizio berri bat lortzen du. Horrela, behin baino gehiagotan esan dugun irudimenaren eta gorputzen errekurtso amaiezina mugatuz.

Beraz, hilabete honetako gonbidapena hauxe izango da, antisorgailu eta asorgailuen aukerak kontuan izanik, bakoitzak bere oreka puntua aurki dezala. Izan ere, gorputz osoa erogenotzat dugunean, momenturik beroenetan ere gure desirei bidea eman ahal izango diegu, gerorako edota momenturako buruhausterik gabe.

Informazio gehiagorako Youtuben aurki dezakezue
(1) “La Luna en mí” dokumentala.
(2) www.condonesmix.com

Galderak egiteko:
ixasexualitateskola@gmail.com

K126:kalaputxi aldizkaria.qxd 14/03/13 21:56 Página 20

ZORIONAGURRAK ZORIONAGURRAK ZORIONAGURRAK



ENARA
7 urte bete ditu dagoeneko gure etxeko erreginak martxoaren 5ean. Muxu handi bat zure familiako guztien aldetik.



NAROA
Zorionak. Dagoeneko 6 urte pototlo! Ondo pasatu eta txokolatezko muxuak etxeko danon izenian, bereziki Enaitzek.



IÑIGO
Zorionak txiki martxoaren 11an zure eguna izan zelako, 2 urte haundi! aitite, amama eta osabaren partez.



JANE
Zorionak martxoaren 26an eta belarrixak preparatu!



MARIBEL
Apirilaren 6an urtebetetzea dezulako, mila kilo Zorion!



KOTXORRITA eta AGUAS
Martxoaren 27an eta 30ean...
ZORIONAK eta maitxe maitxe!
eutsi gogor ehhh!



BEÑAT eta MANEX
A ze parea! Martxoak 13an eta apirilak 12an, 8 eta 11urte handi.
Zorionak familixa guztixan partez.



GARBIÑE
Hemen beste Kotxorrotar bat.
Zorionak txinparta!



IZAR eta DORI
Zorionak bixoi martxoaren 25ean. Prest gaude ondo-ondo pasatzeko. Etxeko danon partez.



IRATI
Zorionak Mutrikutik, lehengusina!



ALAITZ
Apirilaren 18an Zorionak asko maite dugun txipristinari.



ITZIAR
Apirilaren 7an urtebetetzea dezunez Zorionak bihotzez.

RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA
Hondartza 3-4, behea
31 postakutxa
20820 DEBA
Tel. eta faxa: 943 192 249
Mob. 629 639 685
629 641 940
sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

K126:kalaputxi aldizkaria.qxd 14/03/13 21:57 Página 21



KOTXORROTARRAK 1966an
Ines "Kotxorro", Pedro "Kotxorro", Maritxu "Kotxorro" eta Evaristo "Kotxorro".



EGUN PASA ITZIARRA 1953an
Fidelita Alberdi, Jaione Arreitunandia, Libe Arrizabalaga, Begoña Lezertua, Zorion Basterretxea, Miren Agirregomezkorta eta Dorita Uranga.

ANSORREGI
Oinetakoak
Erdiko kale, 9 - 943 60 33 42

IÑIGOBELEN
konde 3 - tfnoa. 943603701
argazki lanak
erretoke digitala
diseinu grafikoa
fotokopiak zuribeltzean/koloretan
euskal preso eta iheslariak etxera

K126:kalaputxi aldizkaria.qxd 14/03/13 21:57 Página 22

ZAINTZAKO BOTIKAK

MARTXOA: Gaueko 10ak arte.

18tik **21**era Zalduegi
22tik **24**ra Burgoa
(zapatu goizian Apraiz)
25etik **28**ra Otxagabia
29tik **31**ra Apraiz



APIRILA: Gaueko 10ak arte.

1etik **4**ra Burgoa
5etik **7**ra Zalduegi
(zapatu goizian Otxagabia)
8tik **11**ra Apraiz
12tik **14**ra Otxagabia
15etik **18**ra Zalduegi
19tik **21**era Burgoa
(zapatu goizian Apraiz)
22tik **25**era Otxagabia
26tik **28**ra Apraiz
29 eta **30** Burgoa

Gaueko 10etatik aurrera
ELGOIBARREN
ikus 4. orrialdea

KORRIKA18

MARTXOAREN 23an
goizeko 8:26an Ondarru aldetik Deba aldera pasako da Mutrikutik.

BERDEL JAIA
Apirilak 6an

GALDONAKO JAIXAK

Martxoak 29an
TUTE TXAPELKETA

Apirilak 1ean
MEZA
HERRI KIROLAK
GORRITIren ABEREAK

MENDI IRTEERAK

BURUMENDI M. E.

APIRILAK 7

GARAI - IURRETA - URKIOLA - OTXANDIO (GR38)

K126:kalaputxi aldizkaria.qxd 14/03/13 21:57 Página 23



Vitoria Optika

AUDIOLOGIA ZENTROA



- Osasun sailak homologatutako audiologia zentroa
- Audioprotesista egunero dago zentroan
- Audiometriak doan, kabina intsonorizatuan
- Teknologia berrienak erabiltzen ditugu
- Etxean ere atenditzen dugu (Graduazioak eta Audiometriak)

Tel. 94 613 41 38
e-mail: mvitoria@cnoo.es

Iparkale, 1
ONDARROA

- Etxea apaintzeko proiektuak
- Altzariak
- Sukaldeak
- Leiho mistoak (egurra eta aluminioa)

AB AROZTEGIA
BARRUETABEÑA Hnos, S.A.

Errenteria auzoa, z/g · ONDARROA
Tel.: 94 683 18 07 · e-posta: barrueta@barruetabena.euskalnet.net

K126:kalaputxi aldizkaria.qxd 14/03/13 21:57 Página 24

XVIII. BERDEL JAIA

Martxoak 27, asteazkena
MUTRIKUKO BERDELA AIPAMENA
20:00etan Udaletxean.

Martxoak 27, asteazkena
VIII. AKUAKULTURA JARDUNALDIAK
"Itxasoa eta arrantza
Lanbide Heziketako topaketak".
Ordutegia: 9:00etatik-14:00etara
Lekua: Zabiel Kultur Etxea.

Apirilak 06, larunbata
BERDEL EGUNA

10:00etatik 14:00ak arte
MERKATU TXIKIA Txurruka Plazan,
BERTANek antolatuta.

BERDEL PINTXOAK doan
herriko tabernetan.

12:00etatik 14:00etara
Beheko plazan, berdel-errea eta
Goiko plazan, berdel-kroketak
eskainiko dira.

12:00etan TRIKITILARIAK
herriko kaleetan zehar.

13.00etan HERRIKO ABESBATZEN
KONTZERTUA Zabiel Plazan.

18:00etatik aurrera,
BERDEL PINTXO DASTAKETA
HERRIKOIA Mutrikuko Portuan.

